

## FUNTSEZKO BALIABIDEAK

Gure proiektuaren arrakasta lortzeko funtsezkoak diren baliabide ukigarriak eta ukiezinak zehaztea oinarritzkoa da.

Baliabide fisikoei dagokienez, esan dezakegu asko direla. Lehenik, sentsoredun iturria aurrera eramateko, iturriez baliatu behar gara, ondoren moldaketak egiteko. Sentsorea ere ezinbestekoa da, noski, eta hau sortzeko materiala gure eskuetan behar dugu. Estaltzeko aluminiozko xaflak garrantzitsuak dira eta soldatzeko makina ere bai. Instalaziorako tresnak lortzeko, gure etxeetatik eskuratuko ditugu, dirua aurrezteko eta berrerabiltzeko. Bestalde, lokal bat behar dugu guk bertan lan egiteko, Uggasaren eskutik jasoko duguna.



Baliabide fisikoez gain, beste batzuk bereizten dira, hain zuzen ere, baliabide intelektualak, proiektua gure kabuz eramaten ahalbideratzen digutenak, esaterako; abileziak, trebeziak, ahalmenak...

Hasteko, ezinbestekoa da produktua muntatzen eta sortzen jakitea, eta teknologia berria aplikatu behar denez, programatzeko ahalmena duen norbait behar da. Izan ere, teknologia munduan interes handia du Uxuek eta ondorioz, bera izango da ekintza honen arduradun.

Horrez gain, iturgintzan lanean aritu den norbait taldean izatea ere garrantzitsua da, mekanismoa eta iturria txertatzeko garaian, horri buruz jakintza izatea. Danel oso trebea da, esperientzia handia du mundu horretan eta pasio handiz egiten du lan.

Bestalde, salmentari dagokionez hainbat faktorek hartzen dute parte. Maddik kostu eta irabazien zenbakiak gestionatu eta administratzen ditu. Pertsona antolatua eta distiplinatua da, eta enpresari benetan lagunduko dion aspektua da.

Ildo beretik, Aratz beste enpresekin kontaktuan egongo den lankidea izango da, sare sozialak gestionatzeko abilezia du eta gogoko du bere lana. Goxotasuna transmititzen die bezeroei eta atsegin handiz tratatzen ditu, ezinbestekoa dena. Salmenta kopurua arrakastatsua izateko, saltzen eta konbentzitzen jakitea beharrezkoa da, eta Aratzek hauek betetzen ditu.

Bakoitzak bere aldetik jarriz eta gure ahalmenak batuz helburua lortuko dugu, horregatik, talde sinergikotzat hartzen dugu geure burua.

Baliabide finantziarioak definitzea ere garrantzitsua da. Lehenik, teldekide bakoitzak 1.000€ jarriko ditu. Beraz gure enpresarekin 4.000€-ko oinarri sendo bat izango dugu hasierako inbertsioa ordaintzeko.